



# Denbora-



## 1 Puzzlea

Puzzleak egiten bizkorra da Manex. Minutu gutxitan egiten ditu. Azken puzzlea osatzeko, zati bat falta zaio. Zein?






## 2 Giltzak

Etxeko giltza galtzen duenerako, kopia bat egina du Xaturerek. Multzo honetatik zein bi giltzek zabaltzen dute etxeko atea?




## 3 Dardoak

Dardo partida jokatzen dute Mirenek eta Julenek arratsaldero. Atzoko partida nork irabazi zuen jakiteko, atera kalkuluak.



**Miren**



**Julen**



Erantzunak: 1.-a. 2.-1-5.  
3.- Mirenek 1.075 puntu lortu ditu, eta Julenek 1.300. 5.-f.

# - pasak


## 4 Hizki salda

Haurrek hizkien zopa gustuko dutela eta, zopa berezia prestatzen ari da Graziana. **Bilatu** lapikoan dauden hitzak hizkien artean.



## 5 Itzala

Mendira joan, eta trikua ikusi dute haurrek gordelekutik irteten. **Itzal** hauetatik zein da basoan ikusitako trikuarena?



## Margotu margolari!

Marrazkilaria trebea izango zara beharbada; baina, marraztu al duzu inoiz begiak itxita? Ea zer moduz moldatzen zaren, artista!

1. Jokoaren gidaria zein izango den aukeratu behar da lehenik. Gidariak orri zuri bat eta arkatz bat emango dizkie jokalaria bakoitzari.
2. Jokalariak begiak itxiko dituzte, eta gidariak esandakoa marrazten saiatuko dira. Txakur bat marrazteko eskatuko die, esaterako, gidariak.
3. Txakurra txukunen marraztu duen jokalaria puntu bat eskuratuko du.
4. Ondoren, biribil bat marrazteko eskatuko die marrazkilariei. Biribilena eta txukunena egiten duen jokalaria puntu bat lortuko du. Gogoan izan marrazki guztiak begiak itxita egin behar direla.
5. Hainbat marrazki egin ostean, puntu gehien lortu dituen jokalaria izango da garaile.